



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko urtarrilaren 24a

9. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru-lege proposamenak:

—11-24/PRO-00001. Foru-lege proposamena, 0-3 urte bitarteko zikloaren unibertsaltasuna eta doakotasuna bermatzekoa. Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak aurkeztu du (3. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—11-24/ITP-00002. Interpelazioa, Nafarroako industriako belaunaldi-ordezkapenari buruzkoa. Antonio Javier Lecumberri Urabayen jaunak egin du (6. or.).

—11-24/ITP-00003. Interpelazioa, hirigintza-garapenen eta lurraldearen antolamenduaren arloko politika orokorrari buruzkoa. Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egin du (7. or.).

F SAILA:

Galderak:

—11-24/POR-00027. Galdera, kirol-federazioen hauteskunde-prozesuak abian jartzeko Kultura, Kirol eta Turismo Departamentuak emandako foru agindu berriari buruzkoa. Ibai Crespo Luna jaunak egin du (8. or.).

—11-24/POR-00028. Galdera, Nafarroako Hondakinei buruzko Plana betetzeari buruzkoa. Carlos Mena Blasco jaunak egin du (9. or.).

—11-24/POR-00029. Galdera, Nafarroako garapen demografikoak hezkuntza-sisteman eta ratioetan duen eragina aztertzeke ikerlan bat egiteari buruzkoa. Eneka Maiz Ulaiar andreak egin du (9. or.).

—11-24/POR-00030. Galdera, lanbide arteko gutxieneko soldataren igoerari buruzkoa. Ainhoa Unzu Garate andreak egin du (10. or.).

—11-24/POR-00031. Galdera, herritarrei gizonen eta emakumeen arteko egiazko berdintasun eraginkorra lortzeko politika publikoen berri emateari buruzkoa. Blanca Isabel Regúlez Álvarez andreak egin du (11. or.).

—11-24/POR-00032. Galdera, Donibane Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratuak dituen espazio-arazoei buruzkoa. Eneka Maiz Ulaiar andreak egin du (11. or.).

—11-24/POR-00033. Galdera, Iturramako osasun-etxeari buruzkoa. María Teresa Nosti Izquierdo andreak egin du (12. or.).

- 11-24/POR-00034. Galdera, industriako enpresa txiki eta ertainei zein handiei zuzendutako laguntzen deialdiari buruzkoa. Mikel Asiain Torres jaunak egin du (12. or.).
- 11-24/POR-00035. Galdera, 1976ko maiatzean Jurramendiko gertaeren harira Alderdi Karlista biktima politiko gisa aitortzeari buruzko mozioa betetzeari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (13. or.).
- 11-24/POR-00036. Galdera, Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuak 2024an garatu beharreko lan-ildo nagusiei buruzkoa. Miguel Garrido Sola jaunak egin du (14. or.).
- 11-24/POR-00037. Galdera, Sozietateen gaineko zergan gutxieneko tasa bat ezartzeari buruzkoa. Miguel Garrido Sola jaunak egin du (14. or.).
- 11-24/POR-00038. Galdera, Forestalia enpresak Zaragoza eta Gatika artean proiektatzen duen goi-tentsio-ko lineari buruzkoa. Laura Aznal Sagasti andreak egin du (15. or.).
- 11-24/POR-00039. Galdera, emakumezkoen pilota bultzatu eta sustatzeko Nafarroako Gobernuak ematen dituen laguntzei buruzkoa. Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak egin du (16. or.).
- 11-24/POR-00040. Galdera, Nafarroan bularreko minbiziaren baheketa-programak duen atzerapenari buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (16. or.).
- 11-24/POR-00042. Galdera, Ebroko Konfederazio Hidrografikoak Errioxako Aldeanueva de Ebro herrian ilegalak diren ureztalurren 2.300 hektarea erregularizatzeko prozesuari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (17. or.).
- 11-24/POR-00043. Galdera, I+G+b arloko inbertsioari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (17. or.).
- 11-24/POR-00044. Galdera, Canal de Navarra SA elkartearen urteko kontuei buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (18. or.).
- 11-24/POR-00047. Galdera, eskualdatzeke dauden transferentzien negoziazioari buruzkoa. Pablo Azcona Molinet jaunak egin du (18. or.).
- 11-24/POR-00048. Galdera, nekazaritzako eta abeltzaintzako sektorearen hitzarmen kolektiboan lanaldia negoziatzeari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (19. or.).
- 11-24/POR-00049. Galdera, Nafarroako 2024rako aurrekontuei buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (19. or.).
- 11-24/POR-00050. Galdera, euskara sustatze aldera Bildurekin itxitako akordioari buruzkoa. María Teresa Nosti Izquierdo andreak egin du (20. or.).
- 11-24/POR-00051. Galdera, biodibertsitatearen kontserbazioarekin bateragarriak diren energia berriztagarriko proiektuak Nafarroan ezartzeari buruzkoa. Carlos Guzmán Pérez jaunak egin du (20. or.).
- 11-24/POR-00052. Galdera, Belateko tuneletako obraren esleipenari buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (21. or.).
- 11-24/POR-00053. Galdera, lanbide arteko gutxieneko soldata igotzen bada PFEZaren tributazioan salbuetsitako gutxienekoa doitzeari buruzkoa. Ramón Alzórriz Goñi jaunak egin du (21. or.).

B saila:
FORU-LEGE PROPOSAMENAK

11-24/PRO-00001. Foru-lege proposamena, 0-3 urte bitarteko zikloaren unibertsaltasuna eta doakotasuna bermatzekoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 22an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dien legegintza-ekimena erabiliz, Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak 0-3 urte bitarteko zikloaren unibertsaltasuna eta doakotasuna bermatzeari buruzko foru-lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 168. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin 0-3 urte bitarteko zikloaren unibertsaltasuna eta doakotasuna bermatzeari buruzko foru-lege proposamena.

2. Foru-lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 168. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru-lege proposamena, 0-3 urte bitarteko zikloaren unibertsaltasuna eta doakotasuna bermatzekoa

HITZAURREA

Haurren Eskubideen Konbentzioaren 28. artikulua hezkuntza-eskubidea aukera-berdintasuneko baldintzetan ezartzen du, eta oharretan gehitzen duenez, "lehen haurtzaroan hezkuntza-eskubidea jaiotzean hasten da, eta oso lotuta dago haur txikiak ahalik eta garapen handiena izateko duen eskubidearekin". Era berean, jasotzen du, gurasoek haurren hazkuntzan eta garapenean funtsezko erantzukizuna duten arren (18. art.), Estatuek zeregin horretan lagundu behar dutela, eta haur guztiei bermatu behar dietela lehen haurtzaroan hezkuntza-programetarako sarbidea, talderik zaurgarrienei arreta berezia eskainita.

Bestalde, Garapen Jasangarrirako Helburuetatik 4.aren 4.2. xedeak esaten du gaur egunetik 2030era ziurtatu egin behar dela haur guztiek lehen haurtzaroan arreta- eta garapen-zerbitzuak eta kalitatezko eskolaurreko hezkuntza eskura izatea, Lehen Hezkuntzarako prest egon daitezen.

Abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoaren bidez aldatu zen Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 12. artikulua ezartzen du Haur Hezkuntza izaera berekiko hezkuntza-etapa bat dela, haurrak jaiotzen direnetik sei urte betetzen dituzten arte artatzen dituen, eta horren helburua dela ikasleen garapen fisiko, afektibo, sozial, kognitibo eta artistikoan laguntzea. Era berean, artikulua horren 5. puntuak ezartzen du ziklo horren garapenak jatorri kultural, sozial eta ekonomikoko desberdintasunek haurren ikaskuntzan eta bilakaeran dituzten ondorioak orekatzei helduko diola, bai eta hezkuntza-laguntzako premia espezifikoaren detekzio goiztiarrari eta arreta goiztiarrari ere.

Errealitatea da Haur Hezkuntza borondatezkoa dela, baina 2. zikloa besterik ez da doakoa. Lehen ziklo edo 0-3 zikloari dagokionez, ezarpen desberdina du autonomia-erkidegoaren arabera.

XXI. mende honen hasieratik, Nafarroako gizartea Haur Hezkuntzako lehen ziklo honetan eskaintza bultzatu beharraz ohartu da, eta jakin badaki garrantzitsua dela haur guztiendako hezkuntza-arreta goiztiarra, bereziki, familien gizarte-eta lan-egoeraren ondorioz beren etxeetan erabateko garapena lortzea ahalbidetuko dien estimulazio-, arreta- eta maitasun-jarraituko giroa ez duten haur horien kasuan.

Horren ondorioz, Nafarroako Foru Komunitateak ikastetxe-sare zabala sustatu zuen, hala ekimen publikotik nola pribatutik. Gure Komunitatean adin horretako ia haur guztiei kalitatezko zerbitzua emateko gai den sarea, eskolako esku-hartze egokia ziurtatzen duena kalitatezko hezkuntza-inguruneetan, beharrei erantzuteko eta desberdintasun pertsonalak, kulturalak eta sozialak orekatzeko.

Era berean, Nafarroa aitzindaria izan zen Haur Hezkuntzako lehen zikloa arautzeko araudiaren garapenari dagokionez; horretarako, martxoaren 26ko 28/2007 Foru Dekretua baliatu zuen, zeinetan aitortzen baitzen etapa horrek erabateko hezkuntza-izaera zuela, eta, aldi berean, ikastetxeei baimena emateko bete beharreko baldintzak eta zikloaren curriculum osoa ezartzen ziren.

Araudi hori Hezkuntzako kontseilariaren abuztuaren 27ko 79/2012 Foru Aginduarekin osatu zen. Agindu horren bidez, hitzarmenak egin ahal izan ziren udalekin, Haur Hezkuntzako haien zentroetako langileria- eta funtzionamendu-gastuak diruz laguntzeko. Horrez gain, tarte ekonomiko batzuk arautu ziren, Nafarroako familiei beren seme-alaben eskolatzearrazteko diru-laguntzak ematea ahalbidetze aldera.

Lehenengo hezkuntza-etapa horren garrantzia gero eta handiagoa denez, Espainiako administrazio publikoek, eta horien artean Nafarroako Gobernuak, ahalik eta gehien erraztu dute ziklo horretan eskolatzeara. Horretarako, doakotasuneremu gero eta zabalagoak sustatu dituzte, batez ere familia behartsuenentzat.

Nafarroan –autonomia-erkidego dezentetan gertatzen ari den bezala–, 2024-25eko ikasturtetik aurrera 0-3 Zikloa doakoa izanen da seme-alabak ikastetxe publikoetan eskolatzen dituzten familia guztientzat.

Bereziki positiboa den egoera horrek talka egin dezake foru-lurraldean dagoen ikaspostu publiko-

en eskaintza desberdin eta urriarekin. Landa-eremu gehienetan, oro har udalen menpe dauden ikastetxeetako ikaspostu publikoen eskaintza nahiko zabala da; hala ere, herri batzuetan azpiegitura horiek garatzen jarraitu beharko litzateke. Hiriguneetan, alabaina, ikaspostuen eskaria ikastetxe publikoek eskainitakoa baino askoz handiagoa da.

Inguruabar horren ondorioz, Nafarroako familia asko –ikastetxe publikoetan onartuak ez direnak edo bestelako ikastetxe bat nahiago dutenak– baztertuak izanen dira, eta, kasu askotan, beraien berriazko baldintzak direla-eta –ekonomikoak edo bestelakoak– ez dute ikastetxe pribatu batera joateko aukerarik izanen.

Hori dela eta, foru lege honek herritar guztien eskubideak zabaldu nahi ditu, eta, aldi berean, Nafarroan Haur Hezkuntzako lehen zikloko zentro baimenduen sare zabalak eskaintzen dituen eskola-ikaspostuak aprobetxatu, eta familiei –arau hau garatzen duen araudiaren arabera– haur-bonu bat emanen die, seme-alaben eskolatzearazteko estaltzeko seme-alabak sare publikoko ikastetxeetan eskolatzen dituzten familien baldintza berberetan.

1. artikulua. 0-3 urte bitarteko zikloaren unibertsaltasuna bermatzea.

0-3 urte bitarteko zikloan haur hezkuntzarako eskubide unibertsala aitortzen zaie Nafarroan errolatutako haur guztiei.

Eskubide hori gauzatu ahalko da hala sare publikoko ikastetxeetan nola Hezkuntza Departamentuak baimendutako ikastetxe pribatuetan.

2. artikulua. 0-3 urte bitarteko zikloaren doakotasuna bermatzea.

1. 0-3 urte bitarteko zikloan haur hezkuntzarako eskubide unibertsala gauzatzeko, Nafarroako Gobernuak zikloaren doakotasuna bermatuko du 2024/2025 ikasturterako, bai sare publikoko ikastetxeetan, bai Hezkuntza Departamentuak baimendutako ikastetxe pribatuetan.

2. Baimendutako ikastetxe pribatuetan eskolatu behar diren haurren kasuan, doakotasun hori gauzatu da haurra ikastetxean matrikulatu ondoren familiei emanen zaien haur-bonu baten bidez.

3. Haur-bonua lortzeko betekizunak eta prozedura (kasu guztietan bermatu beharko da zikloaren unibertsaltasuna eta doakotasuna) erregelamendu bidez ezarriko ditu Nafarroako Gobernuak, foru lege hau indarrean sartu eta 6 hilabeteko gehieneko epean.

4. Haur-bonuaren zenbatekoak eskolatzegastuak estali beharko ditu, mugatzat hartuta sare publikoko haur-eskoletan ezarritako kostua.

3. artikulua. Ikaspostu-kopurua handitzea sare publikoan eta pribatu baimenduan.

1. Nafarroako Gobernuak ikaspostu erabilgarririk handitzea sustatuko du, hala sare publikoko ikastetxeetan nola baimendutako ikastetxe pribatuetan, 1. artikuluan aipatzen den unibertsaltasuna lortzeko behar den ikaspostu-kopurua lortzeko asmoz.

2. Urtero, Hezkuntza Departamentuak laguntza-deialdi bat ezarriko du, baimenik ez duten

ikastetxe pribatuek aukera izan dezaten –hala nahi izanez gero– Hezkuntza Departamentuak xede horretarako une bakoitzean ezartzen dituen betekizunak betetzeko.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Arauak indargabetzea.

Indargabetu egiten dira foru lege honetan xedatutakoari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-24/ITP-00002. Interpelazioa, Nafarroako industriako belaunaldi-ordezkapenari buruzkoa

ANTONIO JAVIER LECUMBERRI URABAYEN JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Antonio Javier Lecumberri Urabayen jaunak egindako interpelazioa, Nafarroako industriako belaunaldi-ordezkapenari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier Lecumberri Urabayenek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, Nafarroako

industriako belaunaldi-ordezkapenari buruzko interpelazio hau aurkezten dio Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilariari, urtarrilaren 25eko Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Manufaktura-industrian orain dela gutxi onetsi da errelebo-kontratu izenarekin ezagutzen denaren luzapena, 2024aren amaiera arte luzatu ere. Neurri horrek inpaktu handia izan dezake gure enpresen osaeran –bereziki, automobilgintzan–, industriak pisu handia baitauka Nafarroako Foru Komunitatearen ekonomian.

Errelebo-kontratua luzatzeak duen garrantziaz jabetuta, Nafarroako industrian belaunaldi-ordezkapena sustatze aldera abiarazi beharreko ekin-tzei buruzko interpelazio hau egiten diogu Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilariari.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 18an

Foru parlamentaria: Javier Lecumberri Urabayen

11-24/ITP-00003. Interpelazioa, hirigintza-garapenen eta lurraldearen antolamenduaren arloko politika orokorrari buruzkoa

JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egindako interpelazioa, hirigintza-garapenen eta lurraldearen antolamenduaren arloko politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Juan Luis Sánchez de Muniáin jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, ikusita garapen jasangarriaren arloan zeinen urriak diren programazioa eta zehaztapena, hain urriak non konpromisoak hartu beharra baitago arazo horri dagokionez,

Hirigintza-garapenen eta lurraldearen antolamenduaren arloko politika orokorrari buruzko interpelazio hau egiten diot Lurralde Kohesiorako kontseilariari.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 18an

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

F saila:
GALDERAK

11-24/POR-00027. Galdera, kirol-federazioen hauteskunde-prozesuak abian jartzeko Kultura, Kirol eta Turismoko Departamentuak emandako foru agindu berriari buruzkoa

IBAI CRESPO LUNA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ibai Crespo Luna jaunak egindako galdera, kirol-federazioen hauteskunde-prozesuak abian jartzeko Kultura, Kirol eta Turismoko Departamentuak emandako foru agindu berriari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ibai Crespo Lunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zioen azalpena.

Urte olinpikoaren esparruan –2024an Parisen Olinpiar Jokoak eginen dira–, kirol-federazioek hauteskunde-prozesuak egin behar dituzte. Prozesu horrek aukera ematen du erregulazioan hobekuntzak egiteko; esaterako, berdintasunaren eta inklusioaren arloetan.

Kultura, Kirol eta Turismo Departamentuaren foru-aginduak zer berritasun dakar kirol-federazioetan hauteskunde-prozesuak abian jartzeko?

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 16an

Foru parlamentaria: Ibai Crespo Luna

11-24/POR-00028. Galdera, Nafarroako Hondakinei buruzko Plana betetzeari buruzkoa

CARLOS MENA BLASCO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Mena Blasco jaunak egindako galdera, Nafarroako Hondakinei buruzko Plana betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Carlos Mena Blascok, Legebil-

tzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Landa Gara-peneko eta Ingurumeneko kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zioen azalpena.

Nafarroako Hondakinen Planaren 7.2 apartatuaren arabera, hartutako neurrien eraginkortasuna eta lortutako emaitzak aztertzeke ebaluazioa eta berrikuspena egin beharra dago. Ingurumen Kontseiluan 2023ko urrian aurkeztutako ebaluazio txostena ikusita, eta kontuan hartuta plana nahiko aurreratuta dagoela:

Nafarroako Gobernuak nola baloratzen du plana bitarte honetan zenbateraino bete den?

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 16an

Foru parlamentaria: Carlos Mena Blasco

11-24/POR-00029. Galdera, Nafarroako garapen demografikoak hezkuntza-sisteman eta ratioetan duen eragina aztertzeke ikerlan bat egiteari buruzkoa

ENEKA MAIZ ULAIAR ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eneka Maiz Ulaiar andreak egindako galdera, Nafarroako garapen demografikoak hezkuntza-sisteman eta ratioetan duen eragina aztertzeke ikerlan bat egiteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu-Nafarroa taldeko foru parlamentari Eneka Maiz Ulaiar andreak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren babesean, eskatzen du Carlos Gimeno Gurpegui hezkuntza kontseilariak Osoko bilkuran honako galdera honi ahoz erantzun diezaion.

2023ko Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko 35/2022 Foru Legean partida bat onartu zen, EH Bilduk zuzenketa bidez proposatua, "Ikerketa demografiko bat egin zedin, Nafarroako garapen demografikoak Hezkuntza Sisteman eta ratioetan izango duen eragina aztertzeke", 2023ko irailean, Parlamentuak, mozio bidez, Gobernua premiatu zuen ikerketa urtea a maitu aurretik aurkez zezan, ekarpenak egin ahal izateko. Parla-mentuak oraindik ez du ikerketa horren berririk izan.

Ikerketa demografikoari buruzko oinarrizko informazioa izan nahi dut: noizko egingen den, nor ari den egiten, metodologia...

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 16an

Foru parlamentaria: Eneka Maiz Ulaiar

11-24/POR-00030. Galdera, lanbide arteko gutxieneko soldataren igoerari buruzkoa

AINHOA UNZU GARATE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Garate andreak egindako galdera, lanbide arteko gutxieneko soldataren igoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ainhoa Unzu Gárate andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuko lehendakariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du lanbide arteko gutxieneko soldata hilean 1.134 eurora bitarte igotze aldera Estatuan lortu den akordioa dela-eta?

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 17an

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Garate

11-24/POR-00031. Galdera, herritarrei gizonen eta emakumeen arteko egiazko berdintasun eraginkorra lortzeko politika publikoen berri emateari buruzkoa

BLANCA ISABEL REGÚLEZ ÁLVAREZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Blanca Isabel Regúlez Álvarez andreak egindako galdera, herritarrei gizonen eta emakumeen arteko egiazko berdintasun eraginkorra lortzeko politika publikoen berri emateari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Blanca Regúlez Álvarez andreak, Lege-

biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasunari buruzko pertzepzioa dela-eta lerketa Soziologikoen Zentroak egin duen azken inkestaren arabera, gizonezkoen % 44k dio hain urrun eraman dela emakumezkoen berdintasunaren sustapena non orain gizonezkoak baitira diskriminazioa pairatzen dutenak. Datu horiek ikusita, Nafarroako Gobernuak zer egingen du gizonezkoen eta emakumezkoen artean benetako berdintasuna lortze aldera egiten diren politika publikoak nafarrei helarazteko?

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 17an

Foru parlamentaria: Blanca Isabel Regúlez Álvarez

11-24/POR-00032. Galdera, Donibane Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratuak dituen espazio-arazoei buruzkoa

ENEKA MAIZ ULAIAR ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eneka Maiz Ulaiar andreak egindako galdera, Donibane Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratuak dituen espazio-arazoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu-Nafarroa taldeko foru parlamentari Eneka Maiz Ulaiar andreak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren babesean, eskatzen du Carlos Gimeno Gurpegui hezkuntza kontseilariak Osoko Bilkuran honako galdera honi ahoz erantzun diezaion.

Zioen azalpena.

2024ko urtarrilaren 17an, Parlamentuko Hezkuntza Batzordea Donibane Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratuan egon zen, proiektua ezagutzeko eta instalazioak dituen gabeziak ikusteko. Hezkuntza Batzordeko kideok bertatik bertara ikusi ahal izan genuen ikastetxean espazio arazo larriak daudela.

Hezkuntza Departamentuak zer asmo du, eta zein epetan, Donibane Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratuan dauden espazio arazoei irtenbidea emateko.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 17an

Foru parlamentaria: Eneka Maiz Ulaiar

11-24/POR-00033. Galdera, Iturramako osasun-etxeari buruzkoa

MARÍA TERESA NOSTI IZQUIERDO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Nosti Izquierdo andreak egindako galdera, Iturramako osasun-etxeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Vox Nafarroa foru parlamentarien elkartearen eledun María Teresa Nosti Izquierdo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 209. artikuluan eta hurrengoetan xedatzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nola antolatuko duzu Nafarroako Oinarrizko Osasun Laguntza Iturramako osasun-zentroan medikurik falta ez dadin?

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 17an

Foru parlamentaria: M^a Teresa Nosti Izquierdo

11-24/POR-00034. Galdera, industriako enpresa txiki eta ertainei zein handiei zuzendutako laguntzen deialdiari buruzkoa

MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak egindako galdera, industriako enpresa txiki eta ertainei zein handiei zuzendutako laguntzen deialdiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Asiain Torres jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuak orain dela egun batzuk iragarri zuen industriako enpresa txiki eta ertainei zein nahiz enpresa handiei zuzendutako 13 milioi euroko laguntzen deialdia eginen duela.

Hori dela eta, Industriako eta Enpresen Transizio Ekologiko eta Digitaleko kontseilariari honako hau galdetzen diogu: Zergatik aurreratu duzu deialdia eta zer helburu lortu nahi da horren bidez?

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 18an

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

11-24/POR-00035. Galdera, 1976ko maiatzean Jurramendiko gertaeren harira Alderdi Karlista biktima politiko gisa aitortzeari buruzko mozioa betetzeari buruzkoa

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, 1976ko maiatzean Jurramendiko gertaeren harira Alderdi Karlista biktima politiko gisa aitortzeari buruzko mozioa betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintza eta Euskara Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako ahozko galdera hau egin dio Legebiltzarreko Mahaiari, Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Batzordean ahoz erantzuteko:

Nafarroako Parlamentuko Herritarrekiko Harremanetako Batzordeak, 2023ko otsailaren 28an egindako bilkuran, mozio bat onetsi zuen, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiau baitzuen eman beharreko errekonozimendu publikoa eta erreparazioa eman ziezaion Alderdi Karlistari, 1976ko maiatzaren 9ko gertakarietako biktima politiko nagusia izan zen aldetik. Hona onetsitako puntuak:

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiau du Bakearen eta Bizikidetzaren Zuzendaritza Nagusiaren bidez Alderdi Karlistari dagokion aitortza publikoa eta erreparazioa egin diezaion –administrazio-egintza egokiaren bidez–, 1976ko maiatzaren 9ko gertakarien biktima politiko nagusia baita, eraso eskuin muturreko zenbait kidek egin baitzuten, Gobernuaren instantzia batzuen laguntzarekin.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiau du Bakearen eta Bizikidetzaren Zuzendaritza Nagusiaren bidez "Memoria toki" gisa seinalezta dezan Jurramendin 1976ko maiatzaren 9ko gertakarietan eraildako bi pertsonen omenez –Ekintza Katolikoko Langile-ermandadeko kide Aniano Jiménez Santos eta Ricardo García Pellejero– Iratxeko monasterioaren ondoren paratutako monolitoa.

3. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiau du desklasifikatu dezan 1976ko maiatzaren 9an Jurramendin (Nafarroa) izandako gertakarietako lotutako dokumentazio oro".

Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuak oraindik ez du bete mozioaren bidez departamentu horri agindutakoa, nahiz eta ia urtebete joan den mozioa onetsi zenetik. Zergatik?

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 18an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

11-24/POR-00036. Galdera, Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuak 2024an garatu beharreko lan-ildo nagusiei buruzkoa

MIGUEL GARRIDO SOLA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Garrido Sola jaunak egindako galdera, Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuak 2024an garatu beharreko lan-ildo nagusiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Miguel Garrido Solak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuari, ahoz erantzun dezan:

Zeintzuk dira departamentuak 2024an bultzatuko dituen lan-ildo nagusiak?

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 18an

Foru parlamentaria: José Miguel Garrido Sola

11-24/POR-00037. Galdera, Sozietateen gaineko zergan gutxienerako tasa bat ezartzeari buruzkoa

MIGUEL GARRIDO SOLA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Garrido Sola jaunak egindako galdera, Sozietateen gaineko zergan gutxienerako tasa bat ezartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Miguel Garrido Solak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Ekonomia eta Ogasun Departamentuari, ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer prozesu bultzatuko du, programa-akordioan jasotzen denari jarraikiz, sozietateen gaineko zergan gutxienerako tasa bat ezartzeko?

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 18an

Foru parlamentaria: José Miguel Garrido Sola

11-24/POR-00038. Galdera, Forestalia enpresak Zaragoza eta Gatika artean proiektatzen duen goi-tentsioko lineari buruzkoa

LAURA AZNAL SAGASTI ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Laura Aznal Sagasti andreak egindako galdera, Forestalia enpresak Zaragoza eta Gatika artean proiektatzen duen goi-tentsioko lineari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Laura Aznal Sagasti andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak urtarrilaren 25eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2023ko urriaren 9an, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak ingurumen-inpaktuaren aldeko adierazpena eman diola, zenbait baldintzarekin, Forestalia enpresak jarri nahi duen goi-tentsioko lineari, zeina Red Eléctrica Española​ Sakanan jarri nahi duenarekiko paraleloan joanen baillizateke.

Forestalia enpresaren beste proiektu bat gehiago da. Oso goi-tentsioko beste linea bat da, 400KV-koa eta 270 Km-koa Zaragoza eta Gatika artean, enpresa horren poligono eolikoetan sortutako elektrizitatea eramateko: Keneo, Kaori, Kari, Kasumi, Keiko eta Kirin, Uncastillo (Zaragoza) aldean.

Azpiegitura hori Zarrakaztelutik sartuko litzateke Nafarroan, eta Nafarroako Foru Komunitateko 29 herri gehiago zeharkatu ondotik Euskal Autonomia Erkidegorantz joanen litzateke.

Ministerioak proiektuari ezarritako baldintzen artean nabarmentzen da Forestaliaren lineak REEren linearekin partekatu behar dituela babesak, "baldin eta teknikaren eta araudiaren arabera hori egiterik badago".

Ingurumen-inpaktuaren adierazpenean honako hau esaten da: "Linea egiteko azken proposamenak linea egitean ukitutako autonomia-erkidegoretako ingurumen arloko organoen aldeko txostena izan behar du".

2022ko apirilean, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak bigarren txosten bat – aurkako– igorri zion ministerioari, 2021ean egindako lehen azterlanari Forestaliak aurkeztutako alegazioei erantzuteko.

2023ko abenduaren 18an, MITECOk erabaki zuen Energía Inagotable de KYOTO SLri aurretiatzko administrazio-baimena ematea Kyoto parke eolikoa –7 MW-ko potentziakoa– eta haren ebakuazio-azpiegiturak egiteko.

Hori guztia ikusita, honako hau galdetzen diot Nafarroako Gobernuari:

Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik jarduketara politiko, juridiko nahiz bestelakorik abiarazteko Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioaren aitzinean baliarazteko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak proiektu horren aurka egindako txostenak?

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 18an

Foru parlamentaria: Laura Aznal Sagasti

11-24/POR-00039. Galdera, emakumezkoen pilota bultzatu eta sustatzeko Nafarroako Gobernuak ematen dituen laguntzei buruzkoa

FRANCISCO JAVIER TRIGO OUBIÑA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak egindako galdera, emakumezkoen pilota bultzatu eta sustatzeko Nafarroako Gobernuak ematen dituen laguntzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako Javier Trigo Oubiña jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer laguntza ematen du emakumezkoen pilota sustatzeko?

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 18an

Foru parlamentaria: Javier Trigo Oubiña

11-24/POR-00040. Galdera, Nafarroan bularreko minbiziaren baheketa-programak duen atzerapenari buruzkoa

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, Nafarroan bularreko minbiziaren baheketa-programak duen atzerapenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak osoko bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer balorazio egiten duzu bularreko minbiziaren baheketa-programak Nafarroan duen atzerapena dela-eta?

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 18an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-24/POR-00042. Galdera, Ebroko Konfederazio Hidrografikoak Errioxako Aldeanueva de Ebro herrian ilegalak diren ureztalurren 2.300 hektarea erregularizatzeko prozesuari buruzkoa

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galdera, Ebroko Konfederazio Hidrografikoak Errioxako Aldeanueva de Ebro herrian ilegalak diren ureztalurren 2.300 hektarea erregularizatzeko prozesuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Miguel Bujanda Cirauqui jaunak honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Ebroko Konfederazio Hidrografikoak Errioxako Aldeanueva de Ebroko ureztalurren 2.300 hektarea ilegal erregularizatzeko prozesua konparaziozko bidegabekeria da Nafarroako ureztatzaileen elkarteei begira. Nafarroako Gobernuak zer informazio dauka, zer jarrera du eta zer eginen du horiek defenditzeko?

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 18an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

11-24/POR-00043. Galdera, I+G+b arloko inbertsioari buruzkoa

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galdera, I+G+b arloko inbertsioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Ángel Ansa Echegaray jaunak honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuko lehendakariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zergatik jarraitzen du Nafarroak BPGaren % 2ra gutxienez iritsi gabe, I+G+Bko inbertsioari dagokionez?

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 18an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

11-24/POR-00044. Galdera, Canal de Navarra SA elkartearen urteko kontuei buruzkoa

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, Canal de Navarra SA elkartearen urteko kontuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Lurralde Kohesiorako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamariquek honako ahozko galdera hau aurkezten dio Legebiltzarreko Mahaiari, Lurralde Kohesiorako Batzordean ahoz erantzun dakion:

Canal de Navarra SA sozietatearen urteko kontuetan urtez urte igotzen da "Eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk" kontuaren zenbatekoa. Sozietate horretako bazkidea den aldetik, Nafarroako Gobernuak zer iritzi dio horri?

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 18an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

11-24/POR-00047. Galdera, eskualdatzeke dauden transferentzien negoziazioari buruzkoa

PABLO AZCONA MOLINET JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pablo Azcona Molinet jaunak egindako galdera, eskualdatzeke dauden transferentzien negoziazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Pablo Azcona Molinetek, Legebiltzarreko

Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasan handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak urtarrilaren 25eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Aurreko astean jakin genuen Nafarroako Gobernuak eta Estatukoak izapideak hasi dituztela beken nahiz ikerketaren, garapenaren eta berrikuntzaren arloko eskumenen kudeaketa Nafarroari eskualdatzeko eta, halaber, iragarri zen epe labur edo ertainean AP-68 autobideko Nafarroako zatiaren titulartasuna eskualdatuko dela.

Prozesu hori abian jarri baita,

Nafarroako Gobernuak zer urrats egingen du aurrerantzean, eskualdatzeke dauden eskumenak eskualdatzeko bidean aitzinera egiteko?

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 21ean

Foru parlamentaria: Pablo Azcona Molinet

11-24/POR-00048. Galdera, nekazaritzako eta abeltzaintzako sektorearen hitzarmen kolektiboan lanaldia negoziatzeari buruzkoa

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, nekazaritzako eta abeltzaintzako sektorearen hitzarmen kolektiboan lanaldia negoziatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu-Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamariquek Legebiltzarreko Mahaiari jakinarazten dio 2024ko urtarrilaren 25eko Osoko Bilkuran eginen duen gaurkotasun handiko galdera honako hau izanen dela:

Gobernuaren ustez, nekazaritzako eta abeltzaintzako sektorerako egun negoziatzen ari den hitzarmen kolektiboan sartu beharko al litzateke sektore horretako langileen erreibindikaziorik garrantzitsuenetako bat –honako hau, hain zuzen ere: gehiengoak astean zehar egiten duen lanaldia, astelehenetik larunbatera garatzen baita, aldatzea atsedeen-egun bakarraren ordean bi atsedeen-egun izateko astean zehar–? Ukitutako aldean artean zubi-lanik eginen al du?

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 21ean

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

11-24/POR-00049. Galdera, Nafarroako 2024rako aurrekontuei buruzkoa

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak egindako galdera, Nafarroako 2024rako aurrekontuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko talde parlamentarioko eledun Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, urtarrilaren 25eko Osoko Bilkuran Nafarroako Gobernuak lehendakariak ahoz erantzun dezan:

Benetan uste al duzu hauek direla Nafarroak behar dituen aurrekontuak?

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 21ean

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

11-24/POR-00050. Galdera, euskara sustatze aldera Bildurekin itxitako akordioari buruzkoa

MARÍA TERESA NOSTI IZQUIERDO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Nosti Izquierdo andreak egindako galdera, euskara sustatze aldera Bildurekin itxitako akordioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteari atxikitako eta Nafarroako Gorteetako kide María Teresa Nosti Izquierdo andreak, Legebiltzarraren Erregelamenduko 209. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zure ustez, euskara sustatze aldera Bildurekin lortutako akordioak on eginen dio enpresa eta profesional kualifikatuak Nafarroara erakartzeko eta bertan atxikitzeko betekizunari?

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 22an

Foru parlamentaria: M^a Teresa Nosti Izquierdo

11-24/POR-00051. Galdera, biodibertsitatearen kontserbazioarekin bateragarriak diren energia berriztagarriko proiektuak Nafarroan ezartzeari buruzkoa

CARLOS GUZMÁN PÉREZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Guzmán Pérez jaunak egindako galdera, biodibertsitatearen kontserbazioarekin bateragarriak diren energia berriztagarriko proiektuak Nafarroan ezartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Carlos Guzmán Pérezek, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkeztu du, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak 2024ko urtarrilaren 25eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Nafarroako gobernu aurrerakoi eta plural baterako programa-akordioko "Klima-aldaketaren aurkako ekintza" ataleko 11. apartatua oinarri hartuta –"Aitzina joatea biodibertsitatea kontserbatzearekin bateragarriak diren energia berriztagarriak erkidegoan ezartzeko proiektuetan, eta, gainera, alderdi hauek sustatzea: autokontsumoa, energia hurbilean sortzea eta energia-komunitateak"–, zer politika egiten du Nafarroako Gobernuak biodibertsitatearen kontserbazio hori ziurtatzeko?

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 22an

Foru parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

11-24/POR-00052. Galdera, Belateko tuneletako obraren esleipenari buruzkoa

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak egindako galdera, Belateko tuneletako obraren esleipenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikia dagoen José Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Ziurtatzen ahal duzu ez dela arbitrariotasunik izan Belateko tunelen obraren esleipenean?

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 22an

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

11-24/POR-00053. Galdera, lanbide arteko gutxieneko soldata igotzen bada PFEZaren tributazioan salbuetsitako gutxienekoa doitzeari buruzkoa

RAMÓN ALZÓRRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzórriz Goñi jaunak egindako galdera, lanbide arteko gutxieneko soldata igotzen bada PFEZaren tributazioan salbuetsitako gutxienekoa doitzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ramón Alzórriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamendua ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak 2024ko urtarrilaren 25eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Espainiako Gobernuak lanbide arteko gutxieneko soldata igoko dela iragarri baitu, Nafarroako Gobernuak gogoan hartuko al du PFEZaren tributazioan salbuetsitako gutxienekoa doitzeko aukera?

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 22an

Foru parlamentaria: Ramón Alzórriz Goñi

